

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

XVI. mendeko haur garbien gidaliburua

Arrastoak

Irailaren 11ren
10. urteurreneko
programazioa

QUENTIN MASSYS



Rotterdameko Erasmo 1517an. Hamahiru urte geroago haurren portaera egokiari buruzko lana idatzi zuen.

FRIBURGO, SUITZA, 1530. Rotterdameko Erasmo *De civitate morum puerilium* lana argitaratu zuen, haurren jokabide egokia bultzatzeko jarraibide sorta. Erasmo berak lehen hezkuntzako eskolan ikasi zuen 13 urtera bitartean, 22 urtera arte agusti-noekin, eta ondoren Pariseko Unibertsitateko ikasle izan zen. Hiru ikas-guneetako diziplinak eragin handia izan zuen Erasmo gaztearengan. Orduz geroztik Eliza Katolikoa arbuaitu zuen, eta ikastetxe katolikoei libreki pentsatzea galarazten zutela ondorioztatu zuen. Hil artean nagusikeriazko aginpide ororen aurka egin zuen.

Baina horrek ez zuen esan nahi haurrak hezi behar ez zirenik. Ber-

pizkunde betean, Erdi Aro iluneko ohitura basatiak baztertu behar zirela eta haurren gizalegezko portaera sustatu behar zela uste zuen. Hona hemen haurrentzat idatzitako lanean jaso zituen aholkuetako batzuk:

- Janari zati bat irentsi ezin baduzu, jira zaitez eta bota ezazu zuhurki.
- Eutsi sabeleko haizeei, sabela estututa.
- Goragalea baduzu egin oka lasai, botaka hastea baino nazkagarriagoa baita okari ezta-rrian eustea.
- Jira zaitez tu egitean, zure listuak inor busti ez dezan. Zoruan, listuarekin batera, zornea botaz gero, behin eta berriro zapaldu behar da, inori goragalea ez eragiteko.
- Ez eskaini zure mukizapia inori, garbitu berria ez bada-go. Mukizapian zintz egin ondoren, ez da egokia zapia

zabaldu eta hari begiratzea, zure sudurrak perlatu eta errubiak bota izan balitu bezala.

- Desegokia da koipez betetako hatzak zurrupatzeko edo jakan garbitzea. Mahai zapia edo ahozapia erabiltzea aholkatzen da.

- Zenbaitzuek, mahaian eseri eta berehala, eskuak platerean sartzen dituzte. Hori otsoek egiten dute, ez gizakiek.

Humanista holandarraren aholkuok garai hartako ohitura zikinen berri ematen digute. Eta ia 500 urtetan jokabide horietako batzuk asko aldatu ez direla ere adierazten dute. XXI. mendean gizakiak oraindik ez baitu lortu mukizapian perlatu eta errubiak bilatzeko tentazioari eustea.

HISTORY CHANNEL telebista-katea programazio berezia eskaintzen ari da irailaren 8tik 14ra, 2001eko irailaren 11ko New Yorkeko World Trade Centerren aurkako atentatuaren 10. urteurrena dela eta. Al Qaeda jatorrietatik hasi eta atentatuaren ondorioetara bitarte, gertakizunarekin zerikusia duten zenbait dokumental eta erreportaje emango ditu kateak, arduradunen esanetan “gaia ahalik eta ikuspuntu gehienetatik jorratzeko”.

Eta irailaren 11n bertan, hemengo 14:46etan —lehen hegazkinak dorre bikietako bat jo zuen ordu zehatzean— 102 minutuko emanaldi bateratua eskainiko dute hainbat hizkuntzatan, historiari buruzko telebistak hainbat herrialdetan dituen kateetan.

